

Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Mikel Urdangarin Castro
biolin-jotzaileak
kontzertua eskainiko du
ostiral honetan

2015eko apirilaren 24a, 437 zenbakia X. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

KONTZERTUA BASTERON

Erakusketa eta hitzaldia Basteron oroimen historikoa ardatz hartuta

Olagain auzoko Santa Krutz adinekoen elkarteak antolatuta, Bastero kulturgunean.

Oroimen historikoa gogoa hartzeko egunak dira hauek. Oroituz taldeak aurreko asteburuan 36ko Gerran eraildakoak eta haien senitartekoak gogoan izan zituen, Etxeberrietan egindako ekitaldian. Datozen egunetan garai hura berriro gogora ekarriko du Santa Krutz adinekoen elkarteak. Erakusketa eta hitzaldia antolatu dituzte datozen egunetarako.

Santa Krutz elkarteak oroimen historikoari ekarpena egin nahi diola aitortzen du. Peio Barandiaran kidearen ahotan, "gobernu ezberdinek urtetan ezkutatu diguten erre-alitatea azalerazten lagundu nahi dugu".

Basteron zabaldu duten erakusketan Iruñerriko Ezkabako presondegiaren lekuko gordina ikus daiteke. Txinparta eta Aranzadi elkarteek bere garaian prestatu zuten erakusketa ikusgai dago Andoainen, maiatzaren 9ra arte. Apirilaren 22az geroztik zabalik dago.



Carrera, Barandiaran eta Velasco erakusketaren antolatzaileak Ezkabako preso baten gorpuzkina irudikatzen duen erreplikaren ondoan.

Panel eta irudi horiekin batera, Andoainen frankismoak eragindako kaltearen inguruko ehun argazki inguru ikusgai izango dira. Oroituz elkarteak urtetan bildutakoak dira eta, erakusketa honetan, Santa Krutz elkartearekin bat egin nahi izan du.

Erakusketa martxan dagoela, ekitaldi aretoan ikusmin

handia sortu duen hitzaldia antolatu dute hurrengo astelehenerako. Apirilaren 27an, astelehenean, Aranzadiko forentse Pako Etxeberria hizlari arituko da. "Oroimenean lokartutako ahotsa" izenburupean, Etxeberriak bere esperientzia azalduko du.

Ekitaldia hasi aurretik Alberto Agirre abesbatzak emana

nalditxo eskainiko du. Oroituz taldeko kide batek ere hitza hartuko du.

Santa Krutz adinekoen elkarteok herriko gizarte bizi-tzan eragile izateko borondatea erakutsi dute ekimen hauek antolatzearekin batera. Irteera eta ibilaldiez gain, herrian bertan ekitaldiak antolatzaren jarraitu nahiko lukete.

Andoain-Lemoa pilota lehia igandean

Igande honetan arratsaldeko 16:00etan hasita, pilota jaialdi ikusgarria izango da Arrate pilotalekuan herriko taldearen eta Lemoa taldearen artean. Berria txapelketaren jardunaldi erabakiorra izango da, eta Gaztelekuk herriko zaletuak pilotalekura hurbiltzeko dei berezia egin dute. Are gehiago, Lemoa iazko talde irabazlea dela kontutan harturik. Igande arratsaldekoa pilotari eskaintzeko modukoa izango da. Lehenik Arraten zuzenean pilota partidak eta, ondoren, ETB1n goi mailako pilota finala. Bietaz gozatzeko tartea izango da, berez.

IGANDE HONETAN ARRATEN, 16:00TAN HASITA

Herriartekoan erabiltzen den sistema bera erabilia, igande honetan kadete, jubenil eta senior mailako pilotariak eskuz binaka arituko dira. Andoain aldetik kadete mailan Osa-Oiartzabal, jubenil mailan Oiarbide-Usandizaga eta senior mailan Eskudero-Erasun. Irabazteko aukerak badituzte, zaletuen laguntzarekin askoz gehiago.





ERRENTA AUTOLIKIDAZIOA EUSKARAZ BATU ETA GEHITU ETEKINA

%30 BAIETZ BURUNTZALDEANI

Informazio gehiago: <http://euskara.buruntzaldea.org>
Sotu Buruntzaldeko Facebook-en eta parte hartu gure lehiaketan!

Andoain / Auzigarraga / Hernani / Lasarte-Oria / Urnieto / Uxerribil
Udal Euskara Batzordeak





IÑAKI ARANZADI • URNIETA

Peru (III)

nak. Eta Lagundian hau bakarrik zen kitxuerez zekiena.

Elkarte horretan zati bat Madrilgo jesuitak ziren, han lan egiten, eta gero euskaldun bi, holandarra bat. Madrilgo jesuitak gizarte gaietan oso sentibera ziren eta euskaldunak, berriz, hizkuntzarekin eta abar. Donostiar Montxok eta A. Abete nafarrak kitxuera ikasi egin zuten. Montxo urruti bizi zen bakarrik bere parrokiari, bost mila metroko altueran. Joan ginen eta harrigarria dena. Antonio anaiari gustatu zitzaion; ez zuen ez asko espero handik sei urtera Antonio bera izango zela Montxoren ordeztu menditako parrokiari... 35 urte badaramatza, ketxuera ondo ikasirik, noski! Aurten bi aldiz izan det Urnietan ne bisitatzen...

Peruko lurraldean sartu ginen. Limaraino oso lehorra, beroa, eguzkitsua, ahuntz batzuk bidean, oso kaskarra... Limara heltzean, baina, aireak inguratuta zegoen. Laino horri "garua" deitzen diote, sirimiri moduko bat. Jesuiten etxean babestu ginen eta hurrengo egunean Villas Salvador izeneko auzo batera joan ginen, Hernaniko monja bat egondako lekura. Auzoa hondarraren gainean erakita zegoen (milioi bat biztanle), eta txabolak ziren bizitokiak baina teilaturik gabe. Galdetu nien: "euria egiten duenean nola babesten zerate?" "Hamaika urte hauek ez du egin eta poztuko ginateke egingo balu", erantzun zidaten; beraz, komunak lurtean egin, hondarrarekin estali eta kitto!

Meza bat eman genuen eta une jakin batean ez dute ba kantatu "Egun da Santi Mamiña" erderaz, orduan konturatu nintzen Hernaniko misiolariak. Hango pobreziarekin harrituta gelditu nintzen. Hurrengo egunean abiatu ginen Cuzcora; egun bat pasa herri hau ikusten eta Urkosera joan ginen, jesuiten elkarre batera handik 40 kilometrora. Antonio da lau horietatik gazteena, bere anaia zeukan elkarre horretan. Urkosen lau ginen, handik aurrera bi: Anjel eta ni. Anaiak Montxo zuen izena eta kitxuerez zekien mintzatzeko. Perun erdiak kitxuak dira eta beste erdiak erdaldu-

Montxo erretiratu egin zen handik; gaixotu, Loiolara bildu eta bertan hil eta han dago hilobiratuta. Eguberriak Urkosen ospatu genituen. Nik infekzioa izan nuen oinetan, zapatarik kendu gabe gau eta egun ibiliaren ondorena. Egun pare bat ohean pasa ondoren, Machu Picchura jirabuelta bat egin ondoren irten ginen Boliviara bidean Anjel eta biok.

Abete jesuita nafarrak sortu zuen kitxuerez egindako lehendabiziko gramatika. Garbi ikusten da euskaldunok hizkuntzari buruz dugun sentiberatasuna. Ezin liteke sinistu halako herri handiaren erdiak bere hizkuntza izan eta ez apaiz, ez sendagile, ez abokatu, ez maisu..., ez izatea bere hizkuntzakorik, erdarak erabat menperatuta.

Ixiar Martiarena eta Mikel Izagirre zerrendaburu izango dira

EH Bilduko zerrendakideak



Aurpegi berriekin batera, politikan eskarmentu handiko jendeak osatzen du zerrenda.

Astearte arratsaldean hautes-zerrendaren aurkezpena egin zuen EH Bilduk Lekaion. Aurrera begirako asmo eta helburuak adieraziz, alderdiaren programa azaldu zuten. Hautagaitza anitza aurkeztu zuten; aurpegi berriekin batera, politikan eskarmentu handiko jendea. Guztien artean nabarmentzen da Mikel Izagirre, 2007-2011 agintaldian

UDAREN ordezkari gisa alkate lanetan jardun zuena.

Amaitzean den agintaldian zinegotzi lanetan jardun duen Ixiar Martiarena izango da alkategaia. Alkate baten ezaugarriez mintzatu zen agerraldian: "Ondorio honetara iritsi naiz, irabazten badugu, ostiralero azalduko naiz pintxopotera herritarrekin egotera", esan zuen herritarren barre artean. Joxe Fer-

min Argiñarenaren bertsoekin amaitu zen aurkezpen ekitaldia.

Hautes-zerrenda: Ixiar Martiarena, Mikel Izagirre, Itziar Artola, Xabier Yurramendi, Amaia Martin, Arantxa Fernandez, Manex Aldey, Ainhoa Olano, Joxean Arozena, Mikel Ezeiza, Marilo Lasa, Mikel Legarreta, Fermin Argiñarena, Maider Izagirre, Gari Albizu, Mirentxu de Miguel.

Udalekuak
2015

Eguzkitan blai
Kirol udalekuak

Izena ematea
Apirilaren 27tik
maiatzaren 8ra

BERTAN bulegoan eta LEKAIO kultur etxean

Informazioa

943 00 00 00
943 00 00 00

MUGIKORTASUN ETA INGURUMEN TAILER BERRIAK DEITU DITUZTE DATORREN ASTERAKO

Aldundiak deitutako tailer parte hartzailea

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere aurrekontuak osatzeko aukera zuzena eskaini die herritarrei. Iaz lau eskualdeetan martxan jarritako esperientzia lurral-

de osora zabaldu dute aurten. Gauzak horrela, Buntuntaldean bi milioi euro zertan gastatu erabakitze-ko aukera izango dute herritarrek.

Gipuzkoako Foru Aldundiak partaidetzako aurrekontuak martxan jarri ditu hamar eskualdeetan, tartean, Beterri edo Buntuntaldean. Eskualde bakoitzean 2.000.000 euro jarriko dituzten herritarren esku, parte hartze prozesu baten bitartez epe motzeko eta ertaineko zein proiektutan inbertitu erabaki dezaten. Aurreko astean tailerra antolatu zuten Andoainean eta aste honetan bertan Lekaiora deitu zituzten urnietarrak. Ez zen parte hartze handia izan, baina hurbildu zirenak gizarte, kultur eta politika mailan eskarmentu handikoak dira.

Egitasmoak aurkeztea, horixe da aurrekontu parte hartzaileen lehen fasea. Martxoan abiatu zen eta oraindik ere proposamenak aurkezteko epea dago.

Egitasmoak aztertzea izango da bigarren fasea, datozen asteetan iritsiko dena. Ekainaren 9an eskualdeko batzarra egingo dute, ia ziurrenik Andoainean. Batzar horretan zein proiektu lehenetsi erabakiko dute. Lekaioko bileran aurreratu zuten hamar egitasmo aukeratu dituzte, eta ordezko beste hamar gehiago. Proposamen horiek guztiak dagoen bideragarritasun txostena izango dute. Alegia, egitasmo bakoitzak azterketa tekniko, juridikoa eta ekonomikoa izango duela. Azterketa lan horiek



Urnietan astelehen arratsaldean egin zuten Gipuzkoako partaidetzako aurrekontuen tailerra, Lekaioko kultur etxean.

Herritarrek ekarpenak egiteko aukera dute, tokian tokiko postontzietan proposamenak aurkeztuz edota aurrekontuahobetzen.eus webgunera idatziz

Aldundiko teknikariek egingo dituzte. Azken fasea udazkenean iritsiko da, eskualde mailan egingo diren proiektu ezberdinen aurkezpenarekin.

Aldundiak parte hartzeko deia luzatu nahi die gipuzkoarrei, zein egitasmo sustatu erabakitzeko haien iritzia kontuan hartuko dutelako.

aurrekontuahobetzen.eus

Urnietarrek eta andoaindarrek ekarpenak egiteko moduak

Andoaingo eta Urnietako tailerrak igarota, proposamenak helarazteko bi modu daude. Batetik, aurrekontuahobetzen.eus webgunearen bidez. Bestetik, bi herrietan ipini dituzten postontziak erabiliz parte har daiteke.

Andoainean: Udaletxean, Urigainen, Gizarte zerbitzuen egoitzan, Basteron eta Allurralde kirodegian.

Urnietan: Udaletxean, Lekaioko, Saroben, Denda Berri, anbulategian eta kirodegian.

Datorren asterako hitzordu gehiago iragarri dituzte:

APIRILAK 28. 19:00. LASARTE. VILLA MIRENTXU. Mugikortasun tailerrean Parezketasuna, Gizarte politika, Oroimen historikoa gaiak landuko dituzte.

APIRILAK 29. 19:00. USURBIL. POTXOENEA. Ingurumenaz gain landuko diren beste hainbat alor: Energia, kultura, ekonomia, turismoa.

Bost hauteszerrenda lehiara

Asteazkenean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak Udala Hauteskundeetara aurkeztutako hautagaien zerrendak argitaratu zituen, "zigilaturik eta errubikaturik". Aurrekusi bezala, alderdi nagusien hauteszerrendak bertan aurkitzen dira. Hots, EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE eta PP alderdiak. Azkenean urnietarrez osaturiko herritarren hauteszerrenda hauteskunde hauetara ez aurkeztea erabaki zuten. Ezustea, ordea, bostgarren hauteszerrendan aurkitzen da. "Escalañes en blanco EB-AZ" izeneko alderdia aurkeztuko da Urnietan. Itxuraz estatu mailako alderdi bat da. Webgunean sartu eta hauxe irakur daiteke: "Puntu bakarra gure programan: Eserlekuak hutsik uztea, edozein soldata eta dirulaguntzari uko eginez"

ESCAÑOS EN BLANCO (EB-AZ)

1. Jose Luis de Zubizaray.
2. Maria Cruz Pascual
3. Daniel Lizarralde.

EAJ-PNV

1. Mikel Pagola.
2. Mariabel Vaquero.
3. Jorge Segurado.
4. David Rosco.
5. Miren Martiarena.

EH BILDU

1. Ixiar Martiarena.
2. Mikel Izagirre.
3. Itziar Artola.
4. Xabier Yurramendi.
5. Amaia Martin.

PSE-EE

1. Consuelo Frutos.
2. Ivan Haro.
3. Maria Belen Alfonso.
4. Herme Gonzalez.
5. Maria Teresa Carnero.

PP

1. Jose Agustin Gilabert.
2. Pedro Moya.
3. Fernando Enguidanos.

Izena emateko epea maiatzaren 4tik 13ra zabalik izango da

Haurreskolan izen-ematea

Datorren maiatzaren 4an Haurreskolak patzuegoko haurreskolatan izena emateko epea zabalduko da. Urnietako Haurreskolan matrikula egiteko epea datorren maiatzaren 4an irekiko da.


Matrikulatzeko deialdia 2014an eta 2015ean jaiotako

haurrei zuzendua dago. Eskariak egin eta gero, matrikulatutako haurrek haurreskolan irailtik aurrera hasteko aukera izango dute.

Informazio gehiago Etxeberri plazako Haurreskolan edo www.haurreskolak.eus webgunean.



PLAIAUNDIRA IRTEERA



Urnietako Presentacion de Maria ikastetxeko LH 4.mailako ikasleok Irungo Txingudi Ekoetxean izan ziren.

“Pagazaren buzoia” babesteko “herri harresia”

Aurreko igande eguerdian, segurtasun neurri handien artean, Covite ETako biktimen elkarteak eta Joseba Pagazaurtunduaren senitartekoek “herri harresia” osatu zuten Agustin Ibarrolaren eskulturaren ondoan, han bertan otsailean ipini zuten buzoia babesteko. Bertaratu artean alderdi politiko ezberdinetako kideak ikus zitezkeen, hala nola, Estanis Amutxastegi alkate ohia, Rosa Diez UPyDko buruzagia edota Chema Herzog PPko ordezkarria. Pagazaurtundu-

tarrak ere izan ziren bertan, tartean Maite arreba. Buzoia bere horretan uztea eskatu diote udaletxeari, eta buzoia kentzeko aginduari alegazioak aurkeztuko dituztela iragarri zuten.

Gai honi lotuta, Andoaingo PSE-EEK Carrere alkateari jokabide “demagogikoa” leporatu zion ostiralean bidali zuten ohar bidez. Eskiera egiten diote: “buzoiak ETako presoen aldeko pintadak eta pankartak irauten duten denbora berdina irau dezala”.

EAJ-PNVk herriaren dekalogoa aurkeztu du

Mari Jose Izagirre alkategaiak Andoain herriaren norabidea aldatu eta herriari behar duen bultzada eman nahi dio: “Andoain geldituta dago Bilduren kudeaketa kaxkarraren ondorioz. Hori dela eta, herria berpiztea izango da jeltzaleen erronka nagusia,

bai eta pertsonen babesa eta ekonomia suspertzea ere”.

Zerbitzu sozialen mapa eguneratzea, andoaindarrentzat lan aukera berriak eta enplegua sustatzea, bertako merkataritza sustatzea... Dekalogoan aurki daitezkeen ideietako batzuk dira.

Asun Guerra, PP alderdiko hautagaia

Agintaldi honetan zinegotzi lanetan aritu dena hautagai izango da berriro. Bere lehen hitzetan, “Andoainek etorkizun hobea merezi duelako, baikortasun eta itzaropen mezua helarazi nahi dut”. Herriak arazo handia duela dio: “Udal aurrekontuaren %90a gastu korrontera doa eta herria hankaz gora dago”.



Andoaingo Stop Desahucios taldearen manifestua

Etxegabetzeen aurka

“Duela aste batzuk Antsoaingo Miren adiskideak bere buruaz beste egin zuen, jardute egokien kodera heltzeko eskariaren aurrean Caja Laboralen partetik ezezko erantzuna jaso eta bere lana eta laguntzak agortu ostean. 2012. urtean Amaia Egaña eta beste pertso-

na ugari egin zuten bere buruaz beste, Espainia hobeto dijoala esaten diguten aldi berean. Hobeto dijoa, baina noski, batzuentzat bakarrik”. Horixe da aurreko larunbatean herriko elkarteak irakurri zuen manifestuaren hasiera. Larunbatean irakurri zuten, martxa

ibiltariari eta “Etxebizitzaren Astea”ri amaiera eman eta gero. Datuen arabera, estatuan 2007. urtetik 250.000 familia inguru ejekuzio hipotekarioen biktima izan dira, eta horien % 80a ohiko etxebizitzatik kaleratuak izan da, CGPJ-ko datuen arabera.

Ana Carrere, Pedro Unanue eta Ainara Rodriguez zerrendaburu

EH Bilduko zerrendakideak



Ana Carrere alkatea hizlari, atzean zerrendakide guztiak dituela.

Txalaparta doinuek eman zioten hasiera aurkezpen ekitaldiari. Zerrendakideak aurkezteaz gain, orain arte egindako lana ere aipatu zuten, “aldaketaren norabidea hartu genuen orain dela lau urte, eta horretan jarraitu nahi dugu, hau hasi besterik ez dela egin sinisten dugulako”.

Xabier Olanok hasitako bidean jarraitzeko deia egin

zuen. Andoain erronka zaila izan dela aitortu zuen; zailtasun handien aurrean “lan bikaina” egin duen herri bat: “Ez da erraza izan, baina bai ederra”. Ondoren, alderdiak izan dituen eta izango dituen lehentasunak azaldu zituen. Maddi eta Garaziren gitar eta ahots doinuek ongi etorria eman zieten Ana Carrere alkategaiari eta bere taldekideei.

Hautes-zerrenda: Ana Carrere, Pedro Unanue, Ainara Rodriguez, Jon Zulueta, Esti Mujika, Agustin Alberro, Uxune Ugarte, Roger Aira, Olatz Esnal, Peio Barandiaran, Maite Etxeberria-Arteun, Patxi Aznar, Elena Lertxundi, Iñigo Pajares, Ikerne Sarasola, Julian Lopez, Miren Lopez de Munain, Iñaki Alzuguren, Rocio Benitez, Beñat Altuna.

III AKADEMIA

SARRIA 2014

Maiatzaren 7an, ostegunarekin
arratsaldeko 19:30etan

Andoaingo Bastero Kulturagunean
EKITALDI IREKIA

Aldatu berriro
Mikel Peruarena

Su zelaiak
eleberriraino

Bi asteburuz luzatuko diren jaiak



2015, apirila



Gore Sentakentzak!

Bitxikeriak
Arropa



Nagusia 6 - Andoain

943 59 12 24

Koadrilen eguna, aurtengo jaien atariko

“URTEROKO KOADRILA EGUNA IZANGO DA, ASTEBETE AURRERATUTA. BETIKO GIROA SORTUKO DA”, ANTOLATZAILEAK ZIUR DAUDE AURTENGO DEIALDIAK ERANTZUN ONA IZANGO DUELA.

Jai batzordea azken uneko antolaketa lanetan buru-belarri dabil. Inoiz ez bezala, betiko jai egitarautik atera eta astebe- te aurreratu dute. Antolatzaileek azaldu dutenez, txartelen salmenta erritmo onean joan da. Lehengo astera- ko 400 txartel inguru salduta zituzten eta azken aste honetan saldutakoekin, guztira, 500 lagun inguru elkartuko di- rela jakinarazi dute. Beraz, urtero ohi- koa den bezala, bazkari jendetsua izan- go da aurtengoa ere.

Koadrilen egunak aldaketa nabarmen- a izan du aurtan. Santa Krutz jaietako egitarauaren parte izaten jarraitzen du, baina maiatzaren hasieran egin ordez, astebe- te aurreratu dute: “Santakruz- tek lau egun soilik irauten dute eta egita- raua oso bete zegoen. Koadrilen egun- ak beti indar asko izan du, ondorioz, beste ekintzei tokia uzteko asmoz, bes- te egun batean egitea pentsatu genuen. Horrela, jende gehiagok hartuko du parte koadrila egunean ere”, argudiatu dute. **Eneko San Jose**ren ustez, goizean zehar jendearen parte hartzea ere han- diagoa izango da, ez dutelako bezpera- ko parrandaren aitzakiarik izango.

Bada erabaki honen alde ez dagoenik ere. Izan ere, hainbat herritarren alde- tik kezak entzun dituzte. “Gazteenen artean nabaritu dugu ez zaiela aldaketa gustatu; diotenez, festetatik kanpo ego- tea ez omen da berdina izango. Guk ahaleginak egin ditugu beste egunik ez



Koadrilen eguna antolatzen aritu diren hainbat herritar, bilera batean ateratako argazkian.

zagoela adierazten eta larunbat honetan izan beharra zuela azaltzen”, dio **Leire Oterminek**.

Lehen eta orain, antolatzaileak jende- aren iritzia jasotzeko irekita daude. Bi- lera guztiak irekiak izaten dira, beraz, herrikideek edozein iritzi bertan emate- ko abagunea dute. Jaietako aldaketak adosteko bilera egin zuten otsaila ingu- ruan eta bertan, jai batzordeak eraman- dako proposamenarekin, hau da, eguna aldatzearekin aurrera egitea erabaki zen. Horregatik, herritarrei bileretara azaltzeko eta bertan beraien iritzia emateko gonbita luzatu diete.

“Nahiz eta Santakruzak ez izan, blu- xak jantzita atera daitezela kalera, he-

rriari kolorea eman diezaioten. Urtero- ko koadrila eguna izango da, astebe- te aurreratuta. Betiko giroa sortuko da”, ziurtatu dute antolatzaileek.

KOADRILEN EGUNA LARUNBAT HONETAN

- 11:00 Bekoplazan hasita herri kirolak, Incansables txarangak alaituta.
- 12:00 Gure Esku Dagoren ekimena: “Herritarron borondatea ehun- tzen” Zumea plazan.
- 14:30 Koadrilen bazkaria. Mahaiak ja- so ondoren ezustekoa Zumea plazan.
- 17:30 Koadrilen kalejiraren hasiera.
- 20:00 Karaokea txosnatan.
- 22:30 DJ Nemux txosnatan.

“Santakruzak lau egun soilik dira eta egitaraua oso bete zegoen. Koadrilen eguna aurreratzea pentsatu genuen, jende gehiagok parte hartuko duelakoan”

OIHAL ZATIAK JOSIZ, GURE ESKU DAGO EKIMENAREN ESKUTIK

Bestalde, Gure Esku Dago ekimenaren baitan, ekintza herritzaile bat egingo dute eguerdiko 12:00etan Zumea plazan. “Hogei pertsonako koadrilak osatuta, oihal zatiak apainduko dituzte: bakoitzak nahi duena idatziz, marraz- tuz... Guztiz irekia da. Hori egin oste- an, koadrila guztien oihal zatiak elkar- tu eta josi egingo dira”, azaldu du **Antton Arrutik**. Herri mailako ekintza hori ekainaren 21ean Anoeta estadioko eki- taldi erraldoira eramango dute. Bertan hautetsontzi erraldoiak eraikiko dituz- te, herriz herri bildutako oihal-zatiak josiz.

Koadrilen egunaren egitarauan ego- nik ere, hitzordua herritar guztiei zu- zenduta dago. Borondatea duen edo- nork har dezake parte. Koadrilak txar- ranga doinuekin plazara hurbilduko di- ra eta hala nahi duten koadrilek Gure Esku Dago ekimenaren deialdian parte hartu ahal izango dute.

Aita Larramendi Ikastola
Gaiti Baita Iratze
Jaietan ere ekito onkaraz

Goizeko 06:00etatik aurrera irekita

Urkiola TABERNA
Etorri eta dasta itzazu gure tabernako pintxo goxoak!
Kale Nagusia, 19. Andoain
943 300 142
“Ondo pasa Santakruzetan!”

arruti
Zumea 18 ANDOAIN 943 593 777
Eneko obradorea: pastelak, pastak, ogi bereziak..
Ondo pasa Santakruzetan!
arrutigozotegia@hotmail.com

Saldias arrandegia
Zumea kalea, 5 ANDOAIN
Tel.: 943 590 704
Ondo pasa festetan!



Jaiei hasiera dendari ohien eskutik

AUZOAN URTE LUZEZ DENDARI IZAN DIRENAK AURTENGO PREGOIA IRAKURTZEAZ ARDURATUKO DIRA. MILA GARRALDA ETA PEDRO MARI SARASOLA BETIKO MERKATARI HAIEN BELAUNALDI BEREKO BI KIDE DIRA.

Komertzio txikien garrantziaz jabetuta, dendariak merezimendu osoko pregoilariak izan behar dutela erabaki du jai batzordeak. "Oso gertuko (ia etxekotzat hartu gaituzte askotan) zerbitzua eskaini digute", irakur daiteke jai programan.

Izendapenak ilusioa eta poza eragin die Mila Garralda eta Pedro Mari Sarasola gogoan hartuko dituzten merkatarietako biri. Azken honek aitortu duenez, "ohoretzat hartu behar dugu, gurekin gogoratzea eta ekitaldi berezi horretan protagonista bihurtzea". Hain zuzen, berari egokituko zaio hitz batzuk luzatzea Zubiaurreko etxe aurrean bilduko diren festazaleei. "Laburra izango da esan beharrekoa: izendapenagatik eskerrak eman, hil direlako edo urrun daudelako gure artean ez daudenak gogoan hartu, bertaratuei festekin gozatzaren saiatzeko eskatu..."

Pittin bat lotsatuta sentitzen dira biak ere. Ugari dira dendari aritu direnak Santa Krutz auzoan, eta ez lukete nabarmendu nahi besteen gainetik, are gutxiago, inoren ordezkari bihurtu nahi. Protagonismoa auzoan dendari izan diren guztien artean banatu behar dela uste dute, eta horrexegatik, dendari ohien izen-abizenen zerrenda egiten ari dira egun hauetan. Horietako batzuekin jada jarri dira harremanetan, hurrengo egunetan egingo dute beste zenbaitekin.

Oroitzapenen kutxa piztu die pregoia egiteko izendapenak. Sarasolak ardotegiarekin 45 urte egin zituen Zumea Kalean; Mila Garraldak 23 urte jantzi dendarekin Kale Nagusian. Urte horietan dendari ugari ezagutzeko parada izan dute. Izenak, barra-barra irtetzen zaizkie, pentsatzen jarri orduko. Gure artean direnak bezainbat kasik hilak direnak, Andoaindik urrundu direnak... Mila Garraldak, egoera politiko zaila zela eta, jasandako presioengatik denda itxi behar izan zuen dendariaren kasu berezia ere gogoan hartu nahi izan du.

Oraingoan aldean, garai bateko komertzioak, behin irekita, luzerako iza-



Mila Garralda eta Pedro Mari Sarasola aurten gogoan izango dituzten merkatarietako bi.

**Sarasolak ardotegiarekin
45 urte egin zituen
Zumea Kalean;
Mila Garraldak 23 urte
jantzi dendarekin
Kale Nagusian**

ten zirela aitortu du Pedro Marik: "Dendariak, gainera, auzokoak bertakoak izaten ginen. Egia esanda, bizitza guztia auzoan bertan egiten zen. Bertan jaio, bertan hazi, bertan jolastu, bertan lan egin, bertan jardun lagun giroan..."

AUZOKO BIZIKIDETZARI, EKARPENA

Santa Krutz auzoari oso lotuta dagoen bizimodua egin dute biak ere, horrenbestez. Pedro Marik, aitarengandik jaso zuen ardotegia: "Gazte nintzela, aita gaixotu egin zen eta aukera parean izan nuen: lantegira joan ala negozioari jarraipena eman. Autonomo izateari eusteko aholkatu zidaten, eta hari heldu nion; inoiz ez naiz damutu. Lagunek oraindik jolasten jarraitzen zuten bitartean neuk erantzukizun handiko aben-

turari ekin behar izan nion, baina esan dezaket nire bizitzan aberasgarria izan zela erabaki hura hartzea".

Milak ere bizitza erabat aldatuko zion erabakia hartu zuen orain dela ia 30 urte. "Amaia, alaba, ezindua zen, eta tailer okupazional batean hastea beste biderik ez zeukan. Egoera horren aurrean, Kale Nagusian denda koskor bat ireki genuen. Poztekoa izan zen erabaki hura, izan ere Amaiaren bizi kalitatearen mesederako izan baitzen, hil zen arte. Berari eta bioi, dendak, herriko jende askorekin harremana edukitzeko eta Andoaingo gizarte bizitzako parte izateko aukera eskaini zigun".

Aberasgarri, bi aldetatik gertatu izan da eta jarraitzen du izaten, dena esatera. Izan ere, dendari izanak asko eman die maila pertsonalean Mila Garraldari eta Pedro Mari Sarasolari. Haien antzera beste hainbati, baina aldi berean, euren negozioek izugarri eskaini diote auzoari eta Andoaingo herriari. Kale bizitzan eta herritarren arteko bizikidetzan, batez ere.

Atzoko eta gaurko merkataritzari begiratua emateko garaian, Mila bat dator Pedro Marik egin duen gogoetarekin: "nik uste, zorioneko behar dugula

"Ohoretzat hartu behar dugu gurekin gogoratzea eta ekitaldi berezi horretan protagonista bihurtzea"

egon, belaunaldi jakin bateko kide garrelako. 36ko Gerra ez genuen zuzenean pairatu, ezta frankismoaren hasierako urterik gogorrenak ere; pobrezia bai, baina lanari dagokionez guztiontzat egon den garaia ezagutu dugu, nahiz eta hori egoera kaskarrekoa izan; eta geroztik, osasuna lagun, erretiro duin batekin geratu gara. Konparaziorik ez oraingo belaunaldiekin! Zaila daukate benetan gure aldean, zer esanik ez komertzio bat ireki edo mantendu nahi izanez gero".

AUZOKO JAIK, SANTAKRUTZAK

Santakruzak Andoaingo jairik kuttunenak dira Mila eta Pedro Marirentzat. Lehenak hiruzpalau ekitaldi aipatu ditu gogokoenen artean: "Zoragarria da Santa Krutz egunean, bandera jaitsiera, eskopeteroak, ezpata dantza eta mezarrekin osatzen duten ekitaldi hori. Eliza inguruan, gainera, oraindik ederragoa bihurtzen da ospakizuna. Leitzarango erreka jaitsiera ikustea gogoko dut. Baita Koadrilen eguna ere. Faltan, berriz, geure gazte garaitan danborraden atzetik antolatzen genuen jai giro alai hori faltan botatzen dut. Saltoka eta eufaka joaten ginen musikaren atzetik".

Pedro Marik ere aitortu du iraganean musika nahikoa izaten zela festa antolatzeko. "Musika izaten zen Santakrutzetako festen oinarri; ahaztu gabe bateletan sortzen zen giroa. Jai egitarauak alderatzen hasiko bagina, argi dago askoz ere ekitaldi gutxiago antolatzen zirela lehen. Nolanahi ere, maiz, musikariak kalean sentitzea besterik ez genuen behar alai-alai ibiltzeko. Gainera, gazteentzat dantzaldiak izaten ziren bikoteekin harremanak edukitzeko aukera, ia aukera bakarra".

GORA SUTZAKRUTZAK

- Atzoko gogoratzearen
- Tzuzteko zarak, biak...
- Dantzaritza emari
- Eza guztienko berrak...

www.izatekoak.com

Gora Santakruzak

Kale Nagusia, 55.
20140 ANDOAIN
Tel: 943 592 954

BOHA
TEGIA
BOAI
TEGIA

Santakruzak Andoainen, egitaraua



Apirilak 30, osteguna. 16:00

Haur pregoia Zumea plazan. Ondoren plazan bertan, txokolate jatea, judo eta karate erakustaldia eta puzgarriak.



Entsegu lanak apirilaren 27an eta 29an, Leitzarari jaietxearen ondoan

Danborradan parte hartzeko entseguak datorren astelehenean eta asteazkenean izango dira.

Peña Santa Krutz elkartearen entseguak, iluntzeko 20:00etatik 21:00etara.

Amnistiaren aldeko danborradaren entseguak, iluntzeko 21:00etatik 22:00etara.

Apirilak 25, larunbata

Koadrilen eguna

- 11:00** Bekoplazan hasita koadrilen arteko herri kirolak, Incansables txarangak alaituta.
- 12:00** Gure Esku Dagoren ekimena: "Herriarron borondatea ehun-tzen" Zumea plazan.
- 14:30** Koadrilen bazkaria Zumea plazan. Dena jaso ondoren final amaierako sorpresa Zumea plazan.
- 17:30** Zumea plazan hasita koadrilen kalejira, Incansables txarangekin.
- 20:00** Karaokea txosnatan.
- 22:30** DJ Nemux txosnatan.

Apirilak 30, osteguna

Jaien hasiera

- 16:00** Haur pregoia Zumea plazan. Ondoren plazan bertan, txokolate jatea, judo eta karate erakustaldiak eta jolasean aritzeko puzgarriak.
- 19:00** Kalean zehar buruhandi eta erraldoiak Zumea plazatik.
- 19:00** Basterotik Gora Kaletxiki txaranga.
- 19:00** Zumeatarra elkartearen danborrada.
- 19:30** Pregoaia Kale Nagusiko dendari ohien eskutik.
- 20:00** Bekoplazan txosnen irekiera.
- 23:00** Elektro txaranga txosnatan hasita.
- 23:30** Bekoplazan berbena doinuekin dantzaldia: Sardeska eta 3gabe2.
- 04:00** Soka salto txosnatan.

Maiatzak 1, ostirala

Baby Band jaialdi berezia

- 09:30** Patinatzaileen lehiaketa.
- 10:00** Diana.
- 10:30** Kros herrikoa.
- 11:30** Txalaparta emanaldia espigoian. Ondoren txalaparta tailerra.
- 11:30** Leizaur parkean haur krosa. Ondoren, txirrindulari lasterketa.
- 12:30** Basteron Kamioi Banda, Abesbatza, Urki, Txistulariak, Triana...
- 17:00** Txalaparta ibiltaria tabernaz taberna.
- 17:30** Erreka jaisiera.
- 18:00** Bekoplazan herri danborrada.
- 18:30** Bizikleta festa haurrentzat Zumea plazan, 2-10 urte artekoentzat.
- 19:00** Txistulariak Txalaka tabernatik hasita.
- 19:30** Taberna arteko pintxo lehiaketa.
- 23:30** Bekoplazan Estricalla, The Riff Truckers, Osso.



Maiatzak 1, ostirala. 17:30

Erreka jaisiera, jai giroan.

ondarreta ikastetxea
A N D O A I N

LEIZARAN
INSTITUTUA

Santakruz jai zoriontsuak opa dizkizuegu

EROSKI city

Ondarreta

Ondarreta kalea, 10-12
ANDOAIN
943 300 760
Jai zoriontsuak!

943 593 627
Ondarreta kalea, 9-behea
ANDOAIN

- Plater konbinatuak
- Bokatak
- Pintxoak

Ondo pasa jaietan!

Gabilondo
AHOLKULARITZA

Ondo pasa jaietan!

Kale berria, 1-behea • Tel./Faxa: 943 303 025
20140 ANDOAIN
E-maila: asesoriagabilondo@yahoo.es

ORDUTEGIA:
Astelehenean: 15:00-19:00
Asteartetik ostegunera: . 09:00-19:00
Ostiraletan: 09:00-17:00
Larunbatetan: 08:00-13:00

ILEAPAINDEGI ETA ESTETIKA

Tatoó
Piercing
Laser
Depilazioa

adats

Jai zoriontsuak!

Belabi kalea, 10-behea
20140 Andoain - Tel.: 943 570 796

Apirilaren 30etik maiatzaren 4ra

Maiatzak 2, larunbata

Auzo bazkaria

- 09:30 Dultzaina topaketa.
- 09:30 Haurrentzat arrantza lehiaketa espigoian.
- 10:00 Artisautza azoka Zumea plazan.
- 12:00 Basteron hasita kantu kalejira eta txalaparta ibiltaria.
- 12:30 Urkiren kalejira eta emanaldia Zumea plazan.
- 14:30 Kale Nagusian auzo bazkaria, La Jodedera taldearekin.
- 17:00 Izartxo eta kale hezitzaileekin jolasak Zumea plazan.
- 17:30 Basteron hasita Soinuak taldearen kalejira eta Azelain baleta.
- 18:30 Pailazoak haurrentzat.
- 19:00 Sardin jatea Zumea kalean.
- 19:30 Elkarteen arteko bakailao txapelketa Kale nagusian. Irunberri fanfarrea kaleetan zehar.
- 22:30 Peña Santa Krutz elkarteen danborrada.

- 23:30 Berbena txosnatan.
- 23:30 Batukada: Zozongo. Basteron hasita eta txosnatan amaituz.
- 01:00 Bekoplazan Ingo Al Deu.

Maiatzak 3, igandea

Santa Krutz eta elegante eguna

- 10:00 Dultzaineroekin Diana.
- 11:00 Ikurriñaren jaitsiera, eskopeteroek lagunduta.
- 11:00 Ezpata dantza, Agintariei harre-
ra.
- 11:30 Meza Santua Santa Krutz elizan.
- 12:00 Ezpata dantza, brokel dantzak.
- 12:30 Andoaingo trikitilariak.
- 12:30 Txakoli dastaketa ermita parean.
- 18:00 Sagardo lehiaketa Zumea plazan.
- 18:00 Zumea plazan taloak "Basatalo-
ak" taldekoen eskutik.
- 18:00 Kalejira elegantea.
- 22:00 Bekoplazan txosnen itxiera eta Elegante egunaren amaiera.



Maiatzak 2, larunbata. 19:30
Elkarteen arteko bakailao txapelketa Kale Nagusian.



Maiatzak 3, igandea. 18:00
Sagardo lehiaketa Zumea plazan. Taloa ere eskura plazan bertan, "Basataloak" taldearen eskutik.



Maiatzak 3, igandea. 18:00
Elegante jantzitako kalejira.


ARANBURU
artekaritza - Aseguruak - Aholkularitza
Gora Santakrutz
Kaleberria, 6 behea • ANDOAIN • ☎ 943 590 814
Faxa: 943 592 403 • artekaritza@agencia.axa-seguros.es



XIXORI
BELARDENDA
DIETETIKA ZENTRUA - KONTSULTA NATURISTA
Ondarreta, 9 ☎ 943 590 199
Txitibar, 4 ☎ 943 245 023
ANDOAIN
Gora Santakrutzak!



ZERU
Zumea plaza, 6-behea
943 59 37 17 - Andoain
Gora Santakrutzak!
Taberna Zeru

ORMENDI KIROLAK
Oparietarako ideiarik ez?
Zatoz guregana!
ONDO PASA FESTETAN!
Kale Berria, 2 • Tel./Faxa: 943 59 18 06
20140 Andoain (Gipuzkoa)

Rock musika jaietan

OSTEGUNEAN DANTZALDIA ETA OSTIRALEAN ROCK KONTZERTUA BEKOPLAZAKO TXOSNA GUNEAN.



Maiatzak 1, osteguna. 23:30. Bekoplaza. Estricalla taldea zuzenean.

Ibilbide oparoa du taldeak, Euskal Herrian bezala estatu mailako aretoetan ohikoa.



Maiatzak 1, osteguna. 23:30. Bekoplaza. Osso taldea zuzenean.

Cobrako Aritzek eta Eraso!ko Sergiok talde berria osatu dute. Paraxuta diskoa aurkeztera datoz.

Patinaia lasterketa

LEHEN EDIZIOA AURTENGO JAIETAN EGINGO DUTE, IRRISTAKA TALDEAREKIN ELKARLANEAN



Irristaka taldeak antolatu du lasterketa, maiatzaren 1ean herri krosaren aurretik jokatuko dena.

Maiatzaren batean, goizeko 09:30ean hasiko da "roller" lasterketa Andoaingo Zumea plazatik, eta bertan izango du amaiera. Aldaparik gabekoa izatean, hasiberrientzako oso egokia da. Partaideek 2,4 km-ko ibilbideari sei itzuli eman beharko dizkiote. Parte hartzea doakoa izango da, baina halabeharrez izena eman beharko da irristaka.org webgunean. Antolatzaileek partaidetza ehun lasterkarira mugatu dute, "internet bidez kopuru horretara iritsiko ez balitz, egunean bertan ere izena emateko aukera egongo da".

Proba herrikoa izatea nahi dute, "hamasei urtetik gorakoek parte hartzeko aukera izango dute. Patinatzen gozatze-

Parte hartzea doakoa izango da, baina halabeharrez izena eman beharko da irristaka.org webgunean

ko lasterketa da; horrenbestez, ez da denborarik hartuko, ezta sailkapenik eskainiko ere. Guri dagokigunez, lasterketan parte hartuko duten guztiak izango dira irabazleak".

Adiskidetasun giroan igaroko da proba, beraz. Aldagelak eta dutxak ere erabilgarri izango dira zerbitzu hori baliatu nahi duen ororentzat.

DANENA
Ondo pasa Santakruzetan!
Egunero menua
Plater konbinatuak
Behalak

BELKOAIN
Fisioterapia zerbitzua

Saioa Audikana Ansa
Aitor Sarasola Astigarraga

Eskola kalea,
6-atzealdea 8. lokala
20140 Andoain
(Gipuzkoa)
Tel.-Faxa: 943 591 202

Amaia
ESTETIKA

Ondo pasa jaietan!

- Depilazio elektrikoa eta laserra
- Presoterapia
- Aurpegirako tratamenduak: - C bitamina.

Kale Nagusia, 49 • ANDOAIN • Tel.: 943 300 669

bitonia
arraindegia

Eskola, 3 Arteta, 7-9
Tel.: 943 30 39 66 - 20140 Andoain. Tel.: 943 573 483

Zabala
Ordukari
Bitxitegia

Kale Nagusia, 14
☎ 943 593 745
ANDOAIN

Ondo pasa festetan

Gudari enparantza, 5
☎ 943 332 341
HERNANI

KUKUTEI
HARATEGIA - URDAITEGIA

Ondo pasa jaietan!

Kale Nagusia, 59
Tel.: 943 593 152
20140 ANDOAIN

Hautatutako produktoak

Erraldoi eta buruhandien konpartsa

ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KONPARTSAK HERRITARREI DEIALDIA LUZATU DIETE. TALDEA KIDE ALDETIK JUSTU SAMAR DABIL ETA GAUZAK ERRAZTE ALDERA, HERRITARRAK TALDERA BATZERA ANIMATU NAHI DITUZTE.

Konpartsa duela zortzi urte inguru sortu zen, eta garai hartako taldekide berberak jarraitzen dute orain ere. Honenbestez, kide berriei konpartsa gerturatzeko deia egin diete. “Hasieran, pare bat lagun mugitu ziren eta ingurukoei esanez, talde koxkorra elkartu ginen. Urteetan zehar, oso gutxi sartu dira eta banaka banaka jendea uzten joan da”, azaldu du **Gari Asensio**k. Ondorioz, kide gehiagoren beharrea daude. Izan ere, bizpahiru lagunek huts eginez gero, taldea hankamotz geratzen baita. “Jende gehiago behar dugu gauzak errazago egiteko. Oso justu gabil-tza”.

Orain arte bezala jarraituta, etorkizunearan taldea arriskuan egon daitekeela uste dute. Taldekideak konpartsa utzi eta utzi joan dira, taldea hankamotz geratzeraino. Horrela jarraituz gero, hil ala bizikoa izango da partaide berrien beharra. “Andoainen jendea ohituta dago erraldoiak ikustera; baina egunen batean falta direla ohartuko dira eta pena hartuko dute. Hutsunea nabarituko dute”, adierazi du **Iker Egañak**.

Konpartsa batek jendea eskatzen du. Erraldioen barruan doazenei laguntza emateko, txandaka dantzatzeko, maskuriak edo motxilak eramateko... Lanak txandaka egiten dituzte eta horretarako beharrezkoa da taldekideak egotea. Finean, jende kopuruak taldea baldintzatzen duela aitortu dute.



Juanma Gonzalez, Gari Asensio eta oihalaren azpian Iker Egaña konpartsa kideak.

Jaietan parte hartzeaz gain, urte osoan zehar entseguetara joateko eta taldearen dinamikan sartzeko prest dagoen jendearen bila dabilta. Konpartsa parte izatea eta barruko dinamika ezagutzea gustatuko litzaieke. Hala, jende gehiagorekin, ekintza gehiago egin ditzaketela gaineratu dute.

GOGOA IZATEA, BALDINTZA NAGUSIA

Nahi duena batu daiteke konpartsa, gazte ala heldu. Erraldoiekin ibiltzeko beldur dena ere proba egitera gonbidatu dute. Azaldu dutenez, erraldoiekin pixkanaka ibiltzen ikasten da: “Hasiberri batek hasieran dantzak ez ditu egin-

go, baina kalejiran ibiltzeko gai izango da. 45 kilo inguruko pisua dute, baina hori baino gehiago, neurria da kontrolatzen zailena. Ondo ibiltzeko orduak eskaini behar zaizkio”.

Adin kontua ere bada, gorputz pixka bat behar delako erraldoiekin ibiltzeko. 16 urtetik gora edukitzea egoki ikusten dute buruhandiez gain, erraldoiak mugitzen hasteko. “Etorri eta hasten badira, oinarri bat hartu dezakete eta urteak pasa ahala, ikasiko dute”. Bestalde, kontuan hartu behar da entseguak iluntzean izaten direla, 21:00etan. Hilean behin entseatzeko dute, eta festen aurretik pare bat aste lehenago hasten dira.

“Gure helburua konpartsan behar adina jende izatea da, horrelako egunetan kanpoko inori etortzeko esan beharrik ez izateko”

Gogoa da taldera batzeko baldintza bakarra. 15 urtekoak ere batu daitezke ikasten hasteko, eta 30 urte ingurukoak animatzen badira, ongi etorriak izango dira, “denei irekita” baitaude.

LANAK, BERE ORDAINA

Emankizun batek lan handia eskatzen du: kamioia kargatzea, jantziak hartzea, hasiera gunera joatea, jantzea, emankizunaren ostean berriro buruhandiak eta erraldoiak kamioian gordetzea... “Hori dena egin ostean, afariak egiten ditugu. Edo emankizuna goizez bada, gosaria egiten dugu”.

Otorduak sari moduko bat dira eta azaldu dutenez, jende askok arrazoi horrengatik hartu izan du parte. Horregatik, konpartsa afariak baino zerbait gehiago direla jakinarazi nahi izan du **Juanma Gonzalez**ek: “gure helburua konpartsan behar adina jende izatea da, horrelako egunetan kanpoko inori etortzeko esan beharrik ez izateko”.

Harremanetan jartzeko:
andoaingokonpartsa@gmail.com.
636 425 197.

Liburu, joku hezitzaile eta oparigaietan aukera zabala
Ondo pasa Santakruzetan!
Zumea 9 - Andoain - Tel.: 943 592 459

aldama_tapia *Ondo pasa Santakruzetan!*
Txitibar plaza, 3-behea • Tel.: 943 594 476 / 943 300 167 • 20140 ANDOAIN

TXITIBAR
Ondo pasa Santakruzetan
Zumea plaza, 7 behea
20.140 ANDOAIN - 943 570 492

MANERU **HURRENGO ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA**
2.000 m² DELANTO ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA
190.000€
ONDO PASA JAIETAN!
606 957 532
www.aldama_tapia.com
www.immolpola.com

Kamioi Baby Band jaialdi berezia Basteron

TALDEAREN HAMARGARRENAREN URTEURRENEAN, EGUNDOKO MUSIKA JAIALDIA ANTOLATU DUTE BASTERON. MAIATZAREN BATEAN IZANGO DA, EGUERDIAN, HERRIKO ERAGILE ASKOREN PARTE HARTZEAREKIN.

Zer dela eta animatu zarete jaialdi erraldoi hori antolatuzera?

Asier Guerrero: Hamar urte betetzera gindoazela eta, geldiduna egiteko gogo sortu zitzaigun. Bidean mugarrira jartzerakoan, ikuskizun berri bat, Andoingo kultur eragile ezberdinei irekitakoa antolatzea aproposa izan zitekeela pentsatu genuen. Iazko irailean hasi ginenean prestaketa lanetan, argi eduki genuen Andoainen biltzen diren musika eta dantza talde guztiei luzatu behar genitela gonbidapena. Susmatzen ez genuena zera zen: hainbatek baiezkoa ematea!

Bakoitzaren musika eta dantza estiloak ezberdinak izanik, denak bateragarriak dira eta denek gure herriaren izaera osatzen dute, garenaren isla dira, azken batean. Filosofia horri eutsi nahi izan genion hasieratik, eta hori lortu dela uste dut. Emanaldiko kartela zeinen beteta datorren ikusi besterik ez dago!

Ez zen erraza izango hainbeste jende dinamizatzea...

A.G.: Uste baino nekezagoa gertatu zaitzuna dena koordinatzea. Iazko oporren ondoren lan ardurak banatu genituenan ez genuen uste hainbesteko lana eskatuko zigunik. Nolanahi ere, eskerrak eman behar zaizkie herriko kultur eragileei; proiektua proposatu ahala lanean jarri dira, munduko borondaterik handienarekin.

Taldearen abeslari izan zen Xabier Garmendia ere gogoratuko da emanaldian zehar...

A.G.: Ezin dugu ahaztu gure abeslaria eta kamiolaria izan zena. Emanaldian zehar tartetxo bat prestatu dugu omenalditxo bat eskaintzeko, bere izena eta izana gogoan hartzeko.

Umorea, musika bezain garrantzitsua izan da beti zuentzat. Basteroko jaialdian zenbateko protagonismoa hartuko du?

A.G.: Jakina, askoren artean osatuko da emanaldia; talde bakoitzak berea egingo du, eta ez daukagu zertan ibili beharrik izaera hori ezartzen inori. Nolanahi ere, filosofia horren ukitu batzuk



Aurreko igandeko entseguko argazkia. Santakrutzeko jaialdi berezia iazko irailean hasi ziren prestatzen.

antzemango dira emanaldian zehar; adibidez, errepertorioan ezusteko gag bat aurreikusita dago. Taldeko kide den Eugenio Delgadok ere prestatuta dauka show bereziren bat. Bestalde, bi aurkezleek, Marta Elvira eta Alex Te-

llok aurkezpenetan komedia pixka bat tartekatzeko asmoa daukate.

Santa Kruzetan, askorentzat ezinbestekotzat bilakatu zarete...

A.G.: Egia esan, taldearen sortzea eta

“Gure asmo nagusiak, bi dira: geuk musikarekin gozatzea eta dibertitzea, eta horrekin batera, entzuleei irribarretxoa eragitea”

aurrera egitea urtez urte, nahiko bat-bateko kontua izan da. Zumea inguruko komertzioak sustatzeko asmoa zuen merkatari talde baten eskaerari erantzunez, herriko zenbait musikaririk -tartean udal musika eskolako zenbait taldea osatu genuen, dixie talde bat hain zuzen. Emanaldi bakarra eskaini genuen larunbat batez, baina ekimen harekin gustura geratu, eta aurrera egin genuen, Kamioi Baby Band sortuz, batez ere Santakrutzetan parte hartzekotan.

Hasieratik, gure asmo nagusiak, bi izan dira: geuk musikarekin gozatzea eta dibertitzea, eta horrekin batera, entzuleei irribarretxoa eragitea eta herriko kaleak eta jaiak alaitzea.



Emanaldian zehar laz zendu zen Xabier Garmendia gogoan hartuko dute.

Añaxa
 Igandeko martxo
 Pasa irribarretxoa
 Pasa
 Pasa
 Ondo pasa
 Martxo 4-behea
 943 50 83 52

LUR
 Denak pol. zb. 207 ANDOAIN
 Tel.: 943 592 851 - 605 763 940
 FISIOTERAPIA
 PILATES ZENTROA
 GORA
 SANTAKRUTZAK!
 biar Igerategi
 Lizaribar

LEIZARAN ↑
 Gestión Inmobiliaria
Jai zorientsuak igaro!
 Kale Nagusia, 53-behea. ANDOAIN
 Tel: 943 591 856
 Faxe: 943 591 856
 e-mail: inmoleizaran@gmail.com
 www.inmoleizaran.com
 ■ Etxebizitzak
 ■ Lokalak
 ■ Alokairuak

Ostiral honetan Basteron, iluntzeko 20:00etan hasita

Biolin errezitaldia Urdangarinen eskutik

Mikel Urdangarin Castro andoaindarra ikasketen azken txanpan dabil. Gradu amaierako kontzertua aurkeztuko du ostiral honetan Basteron, iluntzeko 20:00etan hasita. Doan izango da errezitaldia, baina bertaratu nahi duenak gonbidapenak eskuratu beharko ditu Basteron bertan.

Zer dela eta joko duzu Andoainen?

M.U.C. Bost urteren ondoren, aurten amaituko ditut Goi Mailako musika ikasketak. Gradua amaitzeko, azkenengo pausoa kontzertu bat eskaintzea da. Ordubeteko iraupeneko errezitaldi bat izan ohi da eta, egia esan, graduan garrantzi gehien duen kontzertua horixe da. Beraz, aurretik prestaketa handia eskatzen du eta kurtso guztia errezitaldi hori prestatzera bideratuta dago. Ahalik eta hobekien egiteko, garrantzitsua da obra horiek jendaurrean jotzea. Kontuan hartuta kontzertu horretarako hilabete inguru geratzen dela, apirila amaieran Andoainen jotzea erabaki nuen kontzertua aurkezteko.

Gradu amaierako kontzertuaren entsegu moduko bat izango al da?

M.U.C. Bai, ahalik eta gehien jotzea komeni zait eta jendaurrean bada, askoz hobe. Jendaurrean jotzera ohitzeko, eszenatoki gainean pasatzen diren urduritasun eta tentsio horiei aurre egiteko...

Zer suposatzen dizu Andoainen jotzeak?

M.U.C. Ilusio handia egiten dit herrian bertan jotzeak, nire familia, lagun eta ezagunen aurrean jotzea esan nahi duela. Gainera, musika eskolan hasi nintzen txikitik; beraz, bertara itzultzea bezala izango



Ostiral iluntzean saioa eskainiko du Basteron.

“Kontzertu bakoitza erronka bat da, baina ezagunen aurrean jotzeak bultzada eta babes antzeko bat ematen dit”

da. Kontzertu bakoitza erronka bat da, baina ezagunen aurrean jotzeak bultzada eta babes antzeko bat ematen dit.

Bakarrik arituko zara ala laguntzailerik izango duzu?

M.U.C. Guztira bost obra izango dira; horietatik bi bakarrik joko ditut eta beste hiruretan Maruxa Llorente izango dut laguntzaile. Donostiko Profesional Kontserbatorioko piano irakaslea da eta duela hilabete hasi nintzen berarekin entseatzeko. Oso profesional ona da eta berarekin jotzea oso erraza da.

Errezitaldia nori dago zuzenduta?

M.U.C. Musika klasikoan gazteak erakartzea zailagoa da, baina adin eta publiko guztiari dago zuzenduta; familia, lagun, ezagun eta andoaindar guztiak.

Zer moduz ikusten duzu zure burua?

M.U.C. Nahiko ondo. Urte osoa prestatzen aritu naiz eta, egia esan, Andoaingo errezitaldia neurgailu modukoaa izango da, non nagoen eta nola nagoen ikusteko. Gaurkoz, ondo ikusten dut nire burua.

Gazte Orkestran jarraitzen al duzu?

M.U.C. Bai, ikasketez gain, oraindik Gazte Orkestran jarraitzen dut. Dagoeneko seigarren urtea izango da eta oso esperientzia aberasgarria izaten ari da. Gainera, udarako topaketetan Euskadiko Orkestra profesionalean bekadun bezala aritzeko aukera ematen dute. Aurten proba horiek egin nahi ditut.

Zure musika ibilbideko zein puntutan aurkitzen zara?

M.U.C. Bizitzan bezala, musika munduan etengabeko formakuntza ezinbestekoa da. Gradua amaitu ostean, ikasten jarraitu nahi dut. Ziurrenik interpretazio munduarekin lotutako master bat egingo dut. Hortik aurrera, musika eskola edo kontserbatorio batean irakasle bezala, edota orkestra bateko kide bezala ikusten dut nire burua. Bi gauza horiek asko gustatzen zaizkit.

“Oporrak bakean”

Sahara herriaren aldeko erakundeek “Oporrak bakean” deialdia luzatu dute Andoainen, beste behin ere. Haurrak udan hona ekartzeko deialdia

zabalik dago, apirilaren amaiera arte. Informazioa Udaleko Gizarte Zerbitzuetan lor daitezke 943 304 343 telefono zenbakira deituta.

Helburuen artean haurrak desertuko berotik aldentzea dago, eta baita osasun azterketak egiteko aukera eskaintzea ere.

Batukada feminista martxan jartzeko deialdia

Gizarte Zerbitzu sailak batukada martxan jarri nahi du berrir. Ostirala bitarte izena emateko aukera dago Atarian edota emailaz idatzita (mlizeaga@andoain.eus).

Datorren astelehenean, apirilak 27, “Zergatik batukada feminista bat?” izenburupean hitzaldia eskainiko dute Urigainen. Iluntzeko 19:00etan hasiko da.

Udalaren egoera ekonomikoa, bideratuta



Udal gobernu taldeko kideek agerraldia eskaini zuten udaletxean.

Andoaingo Udal gobernu taldeak horixe adierazi zuten agerraldian, egoera ekonomikoa larriari buelta eman diotela. Hitz gutxitan, azken urteotako joera arriskutsua eten eta 2014ko egoera ekonomikoa positiboan amaitu dela.

Ana Carrere alkateak egin zituen adierazpenetan, aurreko legegintzako kudeaketan aurreikuspen falta izugarria salatzen zuen: “aurreko urteetan aintzat hartu ez zituzten hainbat gastu kontuan hartu behar izan ditugu”. Nagusiki, Ibiurrietik ekarritako urak sortutako gastua (1.300.000 euro) eta Aldundiaren Fondo Foralari itzuli beharrekoa (650.000 euro). Mailegaren amortizazioa ere aipatu zuen, zeinak agintaldi osoan urteko 500.000 euroko gastua sortu duen.

“Gastu horiez gain, diru sarrerak gutxitzen ari zirela kontuan hartu beharra dago”, erantsi zuen Ana Carrere alkateak.

LEGEGINTZALDIA, GERRIKOA ESTUTUTA


“Horrek ondorio larriak ekarri ditu: 2012an eta 2013an likidazioa negatiboa izatea”, azaldu dute. Udalak “arduraz eta kezkaz” hartu du hasieratik egoera ekonomikoa hobetzearen ardura eta Foru Aldundiko Ogasun Saileko arduradunen laguntzarekin, neurri estuak hartu behar izan dituzte: langileen ordezkapenak oso beharrezko kasuetan soilik egitea, hainbat kontratu negoziatzea (eskailera mekaniko, telefono, aseguru edota etxeetako garbitararena), soldatak murriztea... “Neurri oso gogorak izan dira, bai langileentzat baita herritarrentzat ere”, aitortu zuen alkateak.

Neurri horiei esker, 2014ko diru kontuen balantzea positiboan amaitu dela iragarri dute. Alkateak jakinarazi zuenez, 400.000 eurokoa da gerakina eta horietatik Udalak 150.000 euro erabilgarri ditu.

Magia tailerra ludotekan


“Larunbatean euskaraz” egitasmoak magia tailerra antolatzen duen aurreko asteburuan. Arroxbola taldeak lehenik magia ikuskizun txiki bat egin zuen eta ondoren saioa tailer bilakatu zen.

Antolatzaileen esanetan, “goiz ederra pasa genuen, gazteek bezala gurasoek ere”.



Magia tailerra egin zuten Karrikan.

Umorea nagusi Basteroko bertso afarian



Amasa, Zizurkil eta Andoaingo bertsolariak kantuan aritu ziren Basteron.



Hirurogehi lagun inguru hurbildu ziren mendeurrenako bertso saiora, Andoaingo, Amasako eta Zizurkilgo bertsolarien parte hartzearekin. Gaueko bertso batzuk nabarmentzearen, Unai Mendizabalen eta Oihana Iguaranen arteko saio batek irri eta txalo ugari eragin zuen. **Amaita Agirrek** jarri zien gaia: "Senar-emazteak, 20 urte ezkontuta. Zuen ezkontza egunaren urteurrena dela eta logelara, hurbildu zaretenean, opari bat: zuen 18 urteko semearen sorpresa. Esku burdinak, leopardoak, leopardoak, setazko kamisoiak eta ondoan nekazal etxeko txartel bat ohar batekin: Zoazte asteburu pasa, zuek ere intimitatea beharko duzue. On egin".

Oihana Iguaran:

Hogeitau urte, ze azkar pasatu zaizkigun, gure semea argi da honetan jardun. Holako sorpresarik ez zegoen inon, ta bere gurasoei hau opa bazigun, auskalo beretzako ze kristo erosi dun.

Unai Mendizabal:

Hasi beharko degu eskuburdinekin, piura ederra edukiko dugu guk hauekin. Semean desioei behar zaie ekin, buruan zer dadukan nahiko nuke jakin, gainera asmatu du tangan tallarekin.

Oihana Iguaran:

Semea bada planak antolatzeko gai, baino jantzita fijo ez zaitu ikusi nahi.

Hauek oparitura hartu nahi zuen jai, gu kanpora bidali eta bera alai, etxean bere festa egiteko lasai.

Unai Mendizabal:

Nonbait honek ematen baitio morboa, eskuburdinak eta hor leopardoak. Zeozer egiteko hark badu gogoak, bere aita ta ama bidaliz kanpora, guk agroturismoa, hark sexo turismoa.

Oihana Iguaran:

Sexo turismoan gu ez gabiltza maisu, kanping sasterren baten gabiltz beti aizu. Agroturismo baten hartu dezagun su, g puntua bilatzen hasten bazara zu, kanpina baino hobeto bilatu ezazu.

Unai Mendizabal:

Semek intentzioak badauzka nahikoak, ideia txarrik ez du ez, seme tontoak. Jarri eskuburdinak eta gerrikoak, ta probatu ditzagun regalautakoak, ez gara ba izango esker txarrekoak.

Oihana Iguaran:

Eskertzeko zer dagon probatu dezagun, abentura hau zer dan dago ikuskizun. Mozorroen kontua proposatu nizun, ta nola lau bat bertso ondo dakizkizun, ia kantatzen adina aguantatzen duzun.

Unai Mendizabal:

Joe andre maitea, zabilta topera. Orain jarri didazu probako aukera, eta aprobetxatuz ez noa atzera tira saltatu zaitez zu ohe gainera, eta botako dizkizut zortzi habanera.

Joxe Mari Oiartzabal izango da bi diskoen zuzendari artistikoa

Andoaingo ondarea biltzeko disko bikoitza



Mendeurrenako batzordea eta herri ekimena bat eginik agertu ziren bi diskoen berri emateko agerraldian.



Mendeurrenako disko bikoitzaren aurkezpen ekitaldia egin zuten astelehen arratsaldean. Ez da disko bakarra izango, baizik eta bi izango dira. Bi diskoak kantu bildumak izango dira, mendeurrenaren baitan argitaratuko direnak eta bietan ere Joxe Mari Oiartzabal musikari handiaren parte hartzea ezinbestekoa izan da.

Azken hilabeteotan paraleloan garatuz joan diren bi lan izan dira, eta hainbat bilera eta gero, Udalaren babespean argitaratuko dira. Laburbilduz, dagoeneko grabatu den lehen diskoa herri ekimen batek bideratu du eta herriko elkarten ererkiak biltzen ditu. Eta bigarren diskoa mendeurrenako Udal batzordeak bideratu du, herriarekin zerikusia duten musika doinuak jasoz.

Carrere alkateak aurkezpen ekitaldian bi egitasmoak aurkezterakoan poza agertu zuen. Berrondo musika eragileak ere hitz bertsoak erabili zituen: "Egun pozgarria da, bat egite bat adierazten duelako".

Lehen diskoa, esan bezala, dagoeneko grabatu dute. Otsai-

laren amaieran Garate Studios grabazio etxean herri elkarteetako ordezkariak eta danborradatoko kideak musikariekin elkartu zituzten.

Bigarren diskoan herriko musikari gehiagoren parte hartzea izango da. Besteak beste, helduen abesbatzak edota txistulariek parte hartuko dute. Diskak, besteak doinuen artean, Andoaingo ererkiak, San Juan zortzikoa edota Santa Krutz martxa jasoko ditu.

Oiartzabalek, eragile guztien lana eskertzeaz gain, musika ondarea nabarmendu nahi izan zuen: "Gaur aurkezten ditugun bi CD hauek gure herri maiteak duen musika ondarearen frogagiri dira". Bi diskoak Santa Zuzilian aurkeztuko dituzte.

ERAILDAKOEI ETA HAIEN SENTARTEKOEI GORAZARRE EKITALDIA



Beste behin ere, apirilaren 14aren inguruan, Oroitz Andoain elkarteak 36ko Gerran eraildakoak eta haien ondorengoak gogoan izan zituen. Eki-

taldian ordezkari politikoei egia, justizia eta erreparazioaren alde egitea eskatu zieten. Aurten, Villabonako taldea gonbidatu zuten haien esperientziaren

berri eman zezan. Ekaitza iritsi aurretik, Banda Errepublikarrak kantuekin edertu zuten ekitaldia. Hitzorduak bazkariarekin izan zuen segida.



KIROL ALBISTEAK

Parte hartze handia Euskaldunaren ibilaldian

Aurreko igandean Euskalduna mendigoizale taldeak ibilaldi neurtua antolatu zuen, 42 kilometrotan zehar herriko mugak zeharkatuz. Goizean zehar eta arratsaldeko lehen orduak iritsi bitarte Goiburutik Kale Nagusira 250 mendigoizale igaro ziren, mendi ibilaldiaren azken metroak egiteko. Parte hartzaileek Euskaldunako egoitzan merezitako hamaiketako zain zuten.



Mendi irteera familia giroan



Aurreko igandean Euskaldunak antolatu zuen ibilaldi luzeaz gain, Burdinak beste bat bideratu zuen herriko ondarea ardatz hartuta. Biak ere mendeurrenaren ekitaldien baitan antolatu ziren.

Hezitzailea izan nahi zuen ibilaldiak harrera ezin hobea izan zuen, adin guztietako 120 lagunek parte hartu baitzuten. Aurreikuspen guztiak gainditu ziren eta hori dela eta antolatzailak oso pozik daude.

Ibilaldian zehar bidean topatutako karobi, telegrafo eta elementu megalitikoei buruzko azalpenak eskaini zituzten.

Argazkia hamaiketako egin ondoren egin zuten Garate base-riaren aurreko bidegurutzean.

Iturzaeta memoriala martxan

Dagoeneko kalean ikus daitezke Iturzaetaren omenez Sorabillan jokatu den bosgarren memoriala iragartzen duten kartelak. Pala txapelketa herrikoia da, bikoteka jokatzeko dena. Apirilaren 30era bitarte za-

balik dago izena emateko epea.

Derrigorrez Iturzaetaren omenezko kamisetakin jokatu behar da. Dagoeneko badutenek 12 euro ordaindu beharko dute izena emateko garaian. Kamiseta

eta guzti behar dutenek, berriz, 20 euro. Antolatzailak ohartarazi dutenez, aurten partiden atzerapenik ez dute onartuko: "Ordezkoak bilatu behar dira eta hauek bilatzen antolatzailen laguntza izango duzue".

Anai-arrebak duatloian

Aurreko larunbatean, Zumea-tarra taldeko elastikoarekin, maila bikaina eskaini zuten Asier eta Leire Etxezarreta andoaindarrek Azkoitiko duatloian hamaseigarren edizioan. Asierrek zera adierazi zuen: "Bizikleta esfortzu handia egin dut lasterketaren burura iristeko". Gustura zegoen.


Probaren distantziak:

- Lasterka: 9,9 km.
- Bizikletan: 34 km.
- Lasterka: 4,5 km.

Sailkapena, emakumezkoak:

1. Lourdes Oizartzabal 2:03:06
 5. Leire Etxezarreta 2:07:31
- Sailkapena, gizonezkoetan:

1. Ander Agirre 1:46:27
7. Asier Etxezarreta 1:48:33



Preferente mailako futbola

Aurreko asteburuko emaitzak:

Trintxerpe 4-1 Euskalduna
Urnieta 2-0 Munibe
Orioko 2-1 Deusto
Lengokoak 2-2 Baskonia

Sailkapenak:

1. Orioko	61
2. Euskalduna	58
3. Baskonia	51
4. Urnieta	51

Ganbara saski taldea

Aurreko asteburuko emaitzak:

Ganbara SenM 64-52 Katukale
Erroibide 45-46 Ganbara KadM
Aldapeta 4-54 Ganbara InfM

Larunbat honetan, Andoainen:

12:15 Ganbara KadM-Aloña Mendi.
16:00 Ganbara InfM-Aldapeta.
Play off partida.

GRAVNIko final aurrekora

Julen Loitegi urnietarrak Maiz billabonatarrekin batera garaipen erabakiorra lortu zuten GRAVNI txapelketan.

Iparraldeko bikotea 40-19 gainditu eta gero, final aurrekoa Gasteizen jokatu da hilaren azken asteburuan.

Berako mendi lasterketa



Eskualdeko ordezkariak Berako lasterketan izan ziren igandean. Batetik, **Jon Iraola**. Pozik zegoen egindako marka-



rekin. Bestetik, **Beñat Sarasola**. Lehen lasterketa mendian, sufritu arren pozik zegoela adierazi zuen.

Leizaran Ernio-Leizaran, historian lehen aldiz



Historikoa hitza noizbait erabili behar bada, hauxe da kasua. Aurreko larunbatean lehen aldiz Leizarango bi senior

taldeek euren arteko partida ofiziala jokatu zuten, Gipuzkoako Kopa txapelketa lehen jardunaldian (34-16).

Urnieta, bigarren mailara

Aurreko asteburuan emaitzak aditzera eman baziren ere, Urnieta eskubaloitako taldeko senior mailakoan kemena azpimarratu beharra dago. Jokalarie-na eta baita zaletuena ere. Ligako azken partidaren dena eman zuten, Egia taldea 20-32 irabaziz. Baina Leizaran taldeak Zumarragan zuen partida gol bakarraz irabazi eta mailari eutsi ahal izan zion, urnietarren kalterako. Dato-

rren urtean Gipuzkoa mailako bigarren mailan arituko dira.

Berdintasuna nagusi izan da ligan, Urnieta azken aurreko postuan geratu arren ligako zazpigarren sailkatua puntu bakarrera geratu baita. Taldeak zale-tuen babesa eskertu nahi du.

Partidaren hasieran minutuko isiluea egin zuten, Josu Garmendia UKEko kidea gogoan.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Buztina

INISTORRA

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Izarne
Olano, Joxeba Lizeaga
eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta
Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

APIRILAREN 24TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- "Txarriboda", euskaraz. Larunbata, 25: 19:30, 22:00. Astelehena, 27: 19:30, 22:00.
- "Placido Domingo, live at Loreley" opera proiektzioa. Asteleazkena, 29: 20:15.

Deialdiak

Andoain

- Aurtengo San Juan jaietan batukada feminista martxan jartzeko asmoa dute. 19:00. Hitzaldia. Apirilak 27, astelehena.
- Leizaur ikerketa lanaren oinarriak onartu dituzte. Udaleko webgunean ikus daitezke. Egitasmoak aurkezteko epea maiatzaren 15ean bukatuko da.
- "Oporrak bakean" deialdia luzatu dute beste behin ere Sahara herriaren aldeko erakundeek. Haurrak udan hona ekartzeko deialdia zabalik dago, apirilaren amaiera arte. Informazioa: 943 304 345.

Urnietan

- Salesiar ikastetxean ate irekien jardunaldia. 17:00-20:00. Apirilak 23, osteguna.

Buruntzaldea

- Eskualde mailako tailerrak, aurrekontu parte hartzaileen baitan. Lasarte-Oria: Apirilak 28, asteartea. 19:00. Villa Mirentxu. Usurbil: Apirilak 29, asteazkena. 19:00. Potxoenea.

Bozak

Andoain, Urnietan

- Udal hauteskundeak maiatzaren 24an. Kanpaina maiatzaren 8an hasiko da, 22ra arte. Kargu hartze ekitaldia, berriz, ekainaren 13an izango da.

Musika

Andoain

- Mikel Urdangarin Castro biolin-errezitaldia. 20:00. Bastero. Apirilak 24, ostirala.
- Kalakan eta Oreka TX zuzenean arituko dira. 21:30. Bastero. Maiatzak 8, ostirala.

Urnietan, Sarobe

- Tiktara taldea zuzenean, CD berriaren aurkezpena. Apirilak 26, igandea. 20:00.

Erakusketak

Urnietan, Lekaio

- Hernaniko Foto forumaren argazki erakusketa. Azken eguna: Apirilak 30.

Andoain, Bastero

- **San Kristobal gotorlekua:** Iruñean, 36ko Gerran, preso asko egon zen bertan. Santa Krutz adineko zentroaren eskutik ikusgai. Maiatzaren 9ra bitarte.
- **Argazkialdia 2015:** Lobo Altona, Iñigo Royo, Beñat Arregi eta Nagore Legarreta. Erakusketa ekainaren 12ra arte zabalik. Hainbat tailer iragarri dituzte. 18:00. Irekiera ekitaldia Maiatzak 16, larunbata.

Jaiak

Andoain

- **Santa Krutz jaietan**, asteburu honetan koadrilen eguna. Maiatzeko lehen asteburuan jaietako hitzordu guztiak. Gehigarri berezia erdiko orrialdeetan. Apirilak 25, larunbata.
- Aurtengo **Sanjuanen** presaketan, herritarrek egitaraua osatzeko apirilaren 30era arte proposamenak egiteko aukera izango dute. Bestalde, txupinazoa nork bota erabakitzeak aukera irekita dago, maiatzaren 8ra arte.

Hitzaldia

Andoain, Bastero

- "Oroimenean lokartutako ahotsa" Francisco Etxeberriaren eskutik. Antropologoa, auzitegiko medikua, EHUKo lege-medikuntzako irakasle titularra eta Aranzadi elkartearen lehendakaria da. Hizpide nagusiak hauek izango ditu: "Giza eskubideak eta egiaren hazia, gorpuak lurpetik atera eta hilobiak ikertzea, frankismoaren errepresaliak jasandakoak, duintasuna berreskuratzea. Memoria historikoa". Sarrerak gonbidapenarekin bakarrik Santa Krutz erretirodunen zentroan. 19:00. Ekitaldi aretoa. Apirilak 27, astelehena

Dantza

Andoain, Bastero

- "Bost, Urban dance show", Errusiako eta Euskadiko dantzarien ikuskizuna. 21:30. Auditorioa. 10 euro. Apirilak 24, ostirala.

Urnietan, Sarobe

- "Gazte dantza-soka", 10-14 urte bitarteko gazteentzat. Lehen entsegua: 17:30. Apirilak 28, asteartea.

Literatuta

Andoain

- "Alter ero" liburuaztergai. Egilea liburuari buruz solasteko bertan izango da. 19:00-20:30. Liburutegia. Apirilak 28, asteartea.
- "111 akademia" literatur sariaren banaketa ekitaldia. 19:30. Bastero. Maiatzak 7, osteguna.

Irteera

Urnietan

- Denda Berriren eskutik, Asturias aldera irteera. Maiatzak 1-3.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK ZORIONAK ZORIONAK ZORIONAK ZORIONAK



Zorionak, Ane, zorionak zuri. Zenbat bete-tzeittuzun? Ez begiratu horri!!

ANDOAIN




Apirilaren 24an, Urkok 21 urte. Zorionak etxeko-en partetik eta muxuak!

ANDOAIN




Ekhi etxeko judoka eta golfistak apirilaren 27an, 7 urte. Zaku bete muxu zuretzat!!!

ANDOAIN



Elene Lizarribarrek 6 urte beteko ditu hilaren 30ean. Muxu handia, etxekoak.

ANDOAIN




Zorionak Peru! Urte bat! Muxu handia amoni, oxaba, Jai eta Elurtxin partetik.

ANDOAIN




Maixabel ondo ondo pasa eta jaso ezazu muxu eta besarkada potoloa etxeko guztien partez. Igandean janari goxoa prestatu eh? Etxekoak.

ANDOAIN



Malen gure etxeko dantzari eta musikazale politenak, 8 urte beteko ditu apirilaren 25ean. Ondo pasa!! Muxu handia, etxekoak.

ANDOAIN



Inma Eizagirrek urteak bete zituen apirilaren 17an. Zorionak eta muxu handi bat. Guraso eta familia guztia- ren partetik.

ANDOAIN



Irati Ezeiza Usabiagak 18 urte beteko ditu apirilaren 26an. Muxu handia aitona, Esteban eta amona Mirenen partetik.

ANDOAIN ZIZURKIL

MERKATU TXIKIA

- Pertsona bat behar da ume bat goizetan eskolara eramateko, Andoainen. Interesatuak 13:00etik aurrera deitu: 647 93 62 02.

Andoaindarrak 400 asteburuko ekitaldiak

POSTAL TAILERRA APIRILAK 25, LARUNBATA

Gartxot Arregik zuzenduta, postalak egingo dituzte, 10:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:30era. Postala egiteko, Andoaingo argazkiak eraman ditzake norberak; zaharrak, berriak...

400 IRRI BANDA APIRILAK 26, IGANDEA

Andoaingo musika eskolako Udal banda eta haur eta gazteen abesbatzak lagunduta, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen emakizun berezia eskainiko dute. Sarre- rak agortuta daude.

Gazte dantza-soka, deialdia 10-14 urtekoei

Aurten Urnietak herri izaera jaso zuen 400. urteurrena beteko da eta efemeridea ospatzeko Egape dantza taldeak Gazte festetarako egitasmo berezia martxan jarri du, "Gazte dantza-soka" izeneko. Maiatzaren 31n gazte festetan eskaini nahiko lukete eta horretarako ezinbestekoa da herriko 10-14 urte bitarte-

ko gazteen parte hartzea. Lehen entsegua datorren asteartean egingo dute, Saroben. Hitzordua 17:30etan ipini dute.

Oharra: Parte hartu nahi baina entsegu horretara agertu ezin dutenek, mezu bat bidali behar dute egapedantzialdea@gmail.com posta elektronikora.